

GAZTEENTZAKO

GIDA DIDAKTIKOA



2022-23 KANPAINA INSTITUZIONALA

EMATEN TEN

DUGUNA GARA.
MAITASUNA
GARA.



MAITASUNA JASOTZEA ETA EMATEA, OSPATZEKO ARRAZOIA

Caritasen hirurogeita hamabost urte daramatzagu poztasuna defendatzen eta bizitza ospatzen. Gure konpromiso nagusia eta izateko arrazoia, maitasuna ospatzea da, jasotzen dugun eta partekatzen dugun maitasuna. Doakotasunetik jaiotzen den maitasuna, eta jainkotiar eskuzabaltasunetik eta bere herriarekiko, familiarekiko duen maitasunean jatorria duena. Maitasun horren adierazpen gorena, alde batetik, Eukaristian Jesusek duen entregan, eta, bestetik, munduan zehar ditugun komunitateen lanean eta gorputz eta arima aritzea. Komunitate horien lanaren xedea desberdinkeriarik gabeko mundua da, bai eta denok gure eskubideak onartuta izatea eta gure beharrak aseta.

Kristauok Jaungoikoaren Maitasunaren seme-alabak gara, maitasun debaldeko eta eskuzabala. Pertsonak izateagatik jasotzen duguna da. Eta horrekin batera konpromiso bat dugu: eragile helarazleak izatea, egunerokotasunean partekatzea, gure harremanetan, lanean eta bizitzan maitasuna partekatuz. Jaiotze hutsagatik, maitasuna ematen dugunean, garena ematen dugu.

EZ AL DA HAU OSPATZEKO ARRAZOIA?

MAITASUNA, MUNDUKO ARGIA

Aurten besteei maitasuna ematen hirurogeita hamabost urte bete ditugu eta Caritasen erakunde-kanpainak bere egin du **maitasuna mundua argizatzen duen itsasargia** izateko konpromisoa. Itsasargi horri esker, emakume eta gizon guztiak argituko ditugu, beldurra eta iluntasuna desegiteko eta eskuzabaltasuna eta itxaropena agerian uzteko. Itsasargi horrek argiz janzten du guztion etxea izango den mundua eraikitzeko gizakion esfortzuan eta gorputz eta arima aritzean.

Ez da mezu idealista edo utopikoa, errealitatearekin konpromiso sakona duena baizik. Oinak lurrean ditugu, eta gogoan dugu bizi dugun garaia krisi, ziurgabetasun eta zaurgarritasunez beteta dagoela; azken urteetako gertakariak indarkeria eta isolamendua eragin dute. Itsasargi honek zoko ilun horiek argiz betetzen ditu, gogoan izan ditzagun eta oztoporik gabe aurre egin diezaiegun. Baina ez da zeregin bakarra. **Munduko gauza onak argiz bete** behar ditugu. Gainera, maitasunak sortzen duenak argitzeaz eta erakustez gain, berotasuna eskaintzen duen argia da, estimua, eta samurtasuna eta zaintza eskaintzen du. Argi horrek agerian uzten du gure hauskortasuna eta zaurgarritasuna, eta, aldi berean, bere beroari esker babestu eta segurtasuna eskaintzen digu. Horren indargune nagusia da **besteekiko maitasuna bizi-proposamen gisa duen balioa azpimarratzen du** mundu osorako eta kristau komunitaterako, zehazki, eta horrek hiru alderdi desberdinetatik jorratzeko konpromisoa eskatzen digu.

Pertsonala: Izen-abizenak dituzten zaurgarriekin, aurrez aurre. Zuzena, ukitzen duena, ekintzaz betetakoa, eta bizitza samurra sustatzearekin osatzen dena, eta jabetzekiko atxikimendurik gabea.

Soziala: Justiziak eta giza eskubideek bermatzen dituzten balioei esker; eta hori lortzeko besteentzako jardun eta besteekin bat egin behar dugu.

Unibertsala: Lotura eta senidetasuna sortzen du guztion etxearekiko, Kreazioarekiko, Lurrarekiko eta bertan dagoen guztiarekiko.



MAITASUNA,
MUNDUKO
ARGIA

MAITASUNAREKIN PARTEKATUTAKO BIZITZA

Konpromisoaz bizitzeaz mintzatzen ari gara, eta ez beste alde batera begiratzeaz. Maitasunetik eta maitasunagatik sortutako konpromisoa da, porrotari, gatazkari, monotonari edo inertziari beldurra gainditzera garamatzana, eta bertan gelditzera gonbidatzen gaitu, zintzotasunera, “zure ondoan nago, ikusten ez nauzun edo ikusi nahi ez nauzun arren”.

Kristau komunitate zein Caritas garen heinean, ezin dugu epelak edo konformistak izan. Gure konpromisoa Jesusen egiarekin bat dator, eguneroko bizitzako eremu komunetan lekua hartzeko, eta eskuzabaltasun korronteak jalgi daitezen, eta behar handiena dutenen mesedetan bideratzeko.

Hobeak izan behar dugu hobe emateko, eta horretarako zera kontuan hartu behar dugu:

- **Ondokoa eta mundua samurtasunez eta sormenez begiratu.** Hitz egiteko, zerbitzatzeko eta ikasteko begiratu. Begiak ez itxi edo beste aldera begiratu, errealitatea mingarria, desatsegina edo gogaikarria bada ere.
- **Pazientziatz entzutea.** Jaungoikoari, geure buruari, ondokoari, ondokoen barnean dagoen Jaungoikoari, eta gure barnean dagoenari. Munduarekin eta ondokoarekin ditugun harremanetan bost zentzuak erabiltzea, eta itxaropena ez galtzea.
- **Guztion hauskortasuna zaintzea.** Kontziente izatea eta onartzea, gizakiak garela, hauskorak, haizeak botatzen gaitu, eta pisuak, berriz, hautsi. Eta ziur egon behar dugu; izan ere, Jaungoikoaren eta haren maitasunaren seme-alabak gara, eta batera lan egiten, sufritzen, deskantsatzen eta ospatzen dugun komunitatea garen heinean, gure oinarriak sendoak dira, eta horri esker bizitza aurrez aurre begiratu dezakegu, beldurrik gabe.
- **Eskuzabaltasunez partekatzea:** Hau da, platerak beti beteta izatearen miraria betetzea, guztiontzako ogiak eta arrainak izatea. Partekatu eta (geure burua ere) partekatu behar dugu; ez soilik modu materialean, gure denbora, entzuteko denbora eta besarkadak ere partekatu behar ditugu. Laburbilduz, batera egitea eta izatea, komunitate izatearen sentimendua pertsona guztiei helaraztea, ideologiak edo sinesmenak alde batera utzita. Gure barnean dugun maitasuna ematea, hain zuzen ere.
- **Inkoherentzia salatzea:** Hitezkoa eta egitezkoa. Ongizatearekiko bizi-konpromisoa defendatzea, guztiok partekatzen dugunean soilik erabatekoa izan daitekeena, arrazoi politikoengatik, ekonomikoengatik, erlijiosoengatik, kulturalengatik, geografikoengatik... desberdintasunik ez dagoenean. Pertsona ororentzako eskubide osoko bizitza ezagutzera ematea. Eliza eta munduko hiritarrak garen heinean, bidegabekeria eta desparekotasunak salatzea, munduarekiko eta ondokoarekiko ardura eskatzen baitugu.

ZER AURKITUKO DUZU ESKU ARTEAN DUZUN GIDAN?



Gida honen xedea da haur taldeek Caritasen erakunde kanpaina helburu eta ekintza ildoekiko duten hausnarketa eta konpromiso pertsonal eta komunitarioa bultzatzea. Horretarako, hainbat dinamika, ekintza-proposamen eta material aurkezten ditugu, otoitz eta introspekzio uneetarako, banaka zein taldeka.

Jarduerak hainbat material independentez osatuta daude. Taldeekin lantzean denak erabili daitezke, edo bakarrik horietako batzuk, interesen, eskuragarritasunaren, eskuragarri duzuen denboraren edo tesuinguruaren arabera, besteak beste. Bakoitzean deskribapen labur bat eta bakoitzaren helburuak ageri dira; halaber, jarduera gauzatzeko beharrezko materialak, ekintza-proposamena eta konpromisoa bereganatzea daude, jarduera bukatu ondoren egiteko, bai eta hausnarketarako edo otoitzerako une bat ere.





HELBURUAK

- Geure buruari galdetzea zer esan nahi duen mundua aldatzeak, hori egitea gure esku ote dagoen, eta hori lortzeko pertsona eta talde gisa dugun ahalmenaz jabetzea.
- Balioa ematea besteen alde egiteari/emateari.
- Garen horretatik besteei zer oparitu nahi diegun identifikatzea eta oparitzea.
- Mesede-katea egitea.

MATERIALAK



CADENA DE FAVORES INFINITA (MESEDE KATE ETENGABEA)

film laburra

<https://www.youtube.com/watch?v=8Gosg1ybxTU> 



Papertegiko materiala

PAPERA, KARTOI MEHEKO TXARTELAK, BOLIGRAFOAK, ERROTULADOREAK...



HONRAR LA VIDA (BIZITZA OHORATZEA)

abestiaren bideoa (Rozalen/Sole Jiménez)

https://www.youtube.com/watch?v=vIE__NGEFD4 


Bizitza ohoratzea

(Letra Eladia Blázquez)

Ez,
egotea eta igarotzea
hori ez da irautea, ez da existitza
ez eta bizitza ohoratzea.
Hainbeste modu daude ez izateko,
hainbeste kontzientzia jakin gabe, lokartuta.
Bizitza merezi izatea ez da isiltzea, ez eta
hainbeste bidegabekeria behin eta berriz onartzea ere.
Bertutea da, duintasuna da,
eta nortasun-jarrera definituena da.
Egote eta igarotze horrek
ez digu harro egoteko eskubiderik ematen,
ez baita gauza bera bizitza
eta bizitza ohoratzea.



Ez,
egotea eta igarotzea
horrek beti ez du iradokitzen
bizitza ohoratzea.
Hainbeste hutsalkeria txiki dago
gure gizateria tentel eta itsutuan...
Bizitza merezi izatea bertikalean zutitza da
erorketen itsasoaz harago.
Egjari eta geure askatasunari
ongietorria
ematea bezala da.
Egote eta igarotze horrek
ez digu harro egoteko eskubiderik ematen,
ez baita gauza bera bizitza
eta bizitza ohoratzea.



ZER EGINGO DUGU?

Aldatu al daiteke mundua? Baietz esaten diguten adibidez beteta dago bizitza, egunerokoa; izan ere, badira pertsonak sufrimenduaren, bakardadearen, injustiziaren, gorrotoaren eta itxaropenik ezaren aurrean gai direnak euren bultzadarekin mundu hau argitzeko eta berotzeko, eta bizitzeko egokiago eta gizatiarra goa bihurtzeko.

Eta guk, aldatu al dezakegu mundua?

Jarduera honetan gogoeta egingo dugu, eta mundua leku hobea izan dadin laguntzeko eskura ditugun modu batzuk proposatuko ditugu. Erronka txikiak, bakarka edo taldean egin ditzakegunak.

Horretarako, mesede-katea jarriko dugu martxan, elkarrekin gogoeta egingo dugu benetan bizitzeak esan nahi duenari eta konpromiso eskuzabalaren balioari buruz, eta bizitza ohoratzeke ekintzen eta zerbitzuen kutxa antolatuko dugu.



Hasi aurretik, ohar bat: jarduera honetan bi dinamika independente eskaintzen ditugu. Saioan ez dago proposatutako ekintza guztiak egin beharrik. Taldearen kezken, osaeraren, adinaren... arabera; saioaren inguruabarrak edo duzun denbora kontuan hartuta, bata edo bestea aukeratu ahal izango duzu, edo biak egin.

Hasteko *Cadena de favores infinita* bideoa ikusiko dugu denok elkarrekin, eta labur-labur adieraziko dugu zer iruditu zaigun. Ondoren, eztabaida irekiko dugu zer iradokitzen digun, zer kontatzen digun, guran zer ernatzen duen... azaltzeko. Edozein arrazoiengatik ezin bada bideoa ikusi, zuzenean sor dezakegu eztabaida, honako galdera hauetatik abiatuta: Gogoan al dugu inoiz mesede bat egin izana? Zer mesede izan zen? Nola sentitu ginen? Nola sentitu zen mesedea jaso zuena? Eta guri mesede bat egin ziguten azken aldia? Mesedea itzuli egin behar al da? Nahitaezkoa al da? Ideia da dinamikan parte hartzen duten pertsonak jabetzea mesedeak doakoak direla eta onura dakarkietela jasotzen dituenari,

egiten dituenari eta inguruari. Edonork hasi dezake mesedeen kate bat, eta horixe proposatuko diegu, erakusteko guztiontzat bizitza duinagoa, errazagoa, atseginagoa eta bizitzeko egokiagoa egiten dutela eskuzabaltasunak eta ontasunak .

Elkarrizketatik eta mesedeak egiteko eta jasotzeko esperientzia horien oroitzapenetik abiatuta, beren artean mesedeen kate bat egitea proposatuko diegu neska-mutilei. Lehenik, ordena ezarriko dugu: A-k mesede bat egingo dio B-ri; B-k mesede bat egingo dio C-ri; C-k D-ri... eta Z-k mesede bat egingo dio A-ri, taldeko pertsona guztiek mesede bat egin eta jaso dezaten. Bikoteko kideek elkarri kontatuko diote bakoitzak zer egin dezakeen eta zer jasotzea gustatuko litzaiokeen, eta loturak bilatuko dituzte. Bideoan ikusten diren ekintzetatik abia gaitzke edo bururatzen zaigun zerrenda labur batetik adibide gisa, nor berea egin dezan. Argi utziko dugu izan daitezkeela gauza materialak (liburu bat edo bideojoko bat eman edo oparitu, adibidez) edo zerbitzuak, adibidez, (nonbaitera lagundu, ikasten lagundu...). Konpromiso txiki bat hartu beharko dute, baina ez dute zertan une horretan egin: A-k festa baterako makillatzen lagunduko dio B-ri; B-k C-ri gogoraziko dio astebetez, egun bakoitzaren amaieran bere kutxatila berrius dezala; C-k irakurtzen ari den manga utziko dio D-ri; D-k erosketak egitera lagunduko dio E-ri...

Mesedeen katea antolatu eta bakoitzaren konpromisoak adostu ondoren, neska-mutilei eskatuko diegu pentsatzeko zer duten euren besteei emateko, zer eskain diezaioketen beste pertsona batzuei —lagunak, familia, bizilagunak— haiek zaintzeko eta hobeto sentitzeko. Bateratze-lan labur bat egingo dugu, eta guztiei eskatuko diegu aukeratzeko gauza horietakoren bat eta inguruko pertsona bat, mesedeen katea hasteko: euren aukeratu duten hori egingo dute, eta pertsona jakin bati eskatuko diote pentsa dezala zer egin edo zer eskain diezaioketen beste bati hura zaintzeko eta hobeto sentitzeko, eta konpromisoa har dezala aurrera eramateko. Eta horrela, hurrenez hurren.

Jarduera bukatutakoan, **Honrar la vida** kanta entzutea proposatzen dugu, bai jarduera honen amaiera gisa, bai bigarren zatiaren hasiera gisa. Komeni da parte-hartzaileek kantaren letra aurrean izatea eta entzuten duten bitartean irakurri ahal izatea, hobeto barneratzeko. Entzun ondoren, galdetuko diegu zer iradokitzen dien, zer mezu transmititzen dien eta zer den gutariko bakoitzarentzat *bizitza ohoratzea*. Jarduerearen dinamizatzaileek beren aukera eskainiko dute kantaren ildotik: bizitza ohoratzea, bete-betean bizitzea da, hau da, kontzientziaz bizitzea, konprometituta bizitzea, erne eta aktibo egotea gertatzen denaren aurrean, beste aldera begiratu gabe. Ebanjelioaren hitzetan, bizitza ohoratzea, gure talentuak erabiltzea da, guztion onerako jartzea. Gure esku dagoena besterik ez zaigu eskatzen.

Gutako bakoitzak bizitza ohoratzeko zer egin dezakegun zehaztera bideratuko dugu eztabaida. Horretan pentsatuko dugu, eta eskura ditugun gauzen zerrenda egingo dugu, mundua guztiontzat hobea eta bizigarriagoa izan dadin, eta besteei eskain diezazkieten eskatuko diegu parte-hartzaileei. Horretarako, taula bat egitea proposatzen dugu, eta hari “Mesedeen katea” edo “Bizitza ohoratzea” deituko diogu. Bertan adieraziko dugu zer behar dugun eta zer zerbitzu emateko prest gauden. Lehenengo fasean egin dugun mesedeen kate horri forma eta iraunkortasuna ematea bezala izango litzateke.

Taula hori bera birtual bihurtu daiteke, WhatsAppeko talde gisa, Instagrameko profil gisa...



HAUSNARKETA EGIN ETA ESKERRAK EMATEKO

Aspaldi, ekaitz batek sutea eragin omen zuen animaliak bizi ziren uharte txiki batean. Denek hondartza aldera ihes egin zuten ikaratuta, suaren hondamena noiz bukatu zain. Txori zuri txiki bat soilik joan zen itsasora, eta ahal izan zuen ura jaso zuen bere mokoan. Gero, sugarren ginetik hegan egin eta haien gainean bota zuen likidoa. Behin eta berriz errepikatu zuen bidaia, gainerako animalien begiradapean. Atsedendaldi bat hartu zuenean, erbia hurbildu zitzaion eta galdetu zion: “Zoratuta al zaude, zergatik egiten duzu hori? Alferrik da. Ez duzu inoiz lortuko sua itzaltzea”. Txoriak lumak astindu zituen, keak eta errautsak gris bihurtuak. Hauts-laino txiki bat desegin zen airean. “Agian alferrik izango da -esan zuen erbiari begira-, baina hori da nire esku dagoena gure etxea salbatzen saiatzeko”. Eta berriro hegan hasi zen itsasorantz.

Gure esku dago mundua sendatzeko, gizatiarrago bihurtzeko aukera. Kontua ez da gauza handiak eta garrantzitsuak egin arte itxarotea. Aukera sortzen denean, sortzen baldin bada, pentsatuko dugu hori. Oraingoan, bila ditzagun iristen garen horretara konpontzeko moduak: etxean, boluntario-lanean, lagunekin, parrokiari, auzoan edo institutuan. Erronka txikiak, konpromiso txikiak, egin nahi izatea besterik behar ez dutenak. Izan ere, Jesusek dioen bezala: “Ziape-ale bat adinako fedea izango bazenute, hauxe esango zenioke mendi honi: ‘Zoaz hemendik hara’, eta joan egingo litzateke. Ezer ez litzazueke ezinezkoa izango”. (Mt 17, 20).

Jainkoak bizia eman digu, gure bizia, eta harekin batera gaitasunak, gure gaitasunak eta aukera, gure aukera. Jainkoarengan eta geuregan fedea izatea da kontua. Hori da bizitza ohoratzea.

Talentuen parabola (Mt 25, 14-29)

“Atzerrira irten behar zuen gizon harekin bezala gertatzen da. Bere morroiei deitu eta ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi eta beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera, eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Era berean, bi talentu hartu zituenak, inbertitu eta beste bi irabazi zituen. Bat bakarra hartu zuenak, aldiz, lurrean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua.

Handik denbora askora, etorri zen nagusia eta morroiei kontuak hartzen hasi zitzairen. Aurreratu zen bost talentu hartu zituena eta beste bost aurkeztu zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; hona beste bost nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut. Sartu zure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen, gero, bi talentu zituena eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; hona beste bi nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut. Sartu zure jaunaren festa ospatzera” Aurreratu zen talentu bakarra hartu zuena eta esan zion: “Jauna, badakit gizon zorrotza zarela, erein ez duzun tokian hartzen eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beldur nintzen eta zure talentua lurrean ezkutatu nuen. Hona zeure dirua!” Nagusiak erantzun zion: “Ai morroi gaizto eta alferra! Bazenekien erein ez dudan tokian hartu eta zabaldu ez dudan tokian bildu nahi dudala? Beraz, bankuan jarri behar zenuen nire dirua, itzultzean bere interesekin jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentua eta eman hamar dituenari. Izan ere, daukan orori eman egingo zaio eta soberan izango du, baina ez duenari, daukana ere kendu egingo zaio”.

Eman ieazkiguzu eroak

Jesuiten (SJ) Pastoral

Ene Jainkoa! Bidal ieazkiguzu eroak
buru eta belarri konprometitzen direnak,
euren buruaz ahazten diren horietakoak,
maitatzen dutenak
hitzekin baino zerbait gehiagorekin,
beren bizitza
egiaz eta azkeneraino entregatzen dutenak.
Eman ieazkiguzu eroak,
zoroak,
kartsuak,
gizon trebeak
pobreziaren ziurgabetasun
harrigarrirantz
jauzi egiteko gai direnak;
Eman ieazkiguzu eroak,
orainaldiko eroak,
bizimodu xumeaz
maiteminduta daudenak,
bakea maite dutenak,
kontzientzia garbia dutenak,
edozein eginkizun onartzeko gai direnak,
edonora joateko gai direnak,
libreak eta tolesgabeak,
gozoak eta sendoak.
Eman ieazkiguzu eroak, Jauna, eman ieazkiguzu eroak.



2. JARDUERA LURRARI GUTUNA

HELBURUAK

- Lurra guztion etxe gisa aurkeztea.
- Lurrarekin dugun loturaz jabetzea, konturatzea ez dela gurea, baizik eta gu garela harenak.
- Gure esku, gizarte gisa eta gizabanako gisa, zer dagoen identifikatzea, lurra babesteko.
- Merezi duen arreta eta errespetuarekin gozatzeko konpromisoa hartzea.


MATERIALAK



SWAMISH LEINUKO INDIAR BURUZAGIAK AMERIKETAKO ESTATU BATUETAKO PRESIDENTEARI

bidalitako gutuna

<http://herzog.economia.unam.mx/profesores/blopez/valoracion-swamish.pdf>



SWAMISH INDIAR BURUZAGIAREN

gutuna (Bideoa)

https://www.youtube.com/watch?v=goHG_-w_1r4

<https://cartadelatierra.org/lea-la-carta-de-la-tierra/descargar-la-carta/>



LURRARI BURUZKO

kantak

[https://www.youtube.com/watch?v=WCaYdsZkW4U&](https://www.youtube.com/watch?v=WCaYdsZkW4U&list=PLSPSEqvcuq42wDE2nqVGDZIEFblzu1c7I&index=9)

[list=PLSPSEqvcuq42wDE2nqVGDZIEFblzu1c7I&index=9](https://www.youtube.com/watch?v=WCaYdsZkW4U&list=PLSPSEqvcuq42wDE2nqVGDZIEFblzu1c7I&index=9)

ZER EGINGO DUGU?

Lurra guztion etxea da, milaka milioi lagunek partekatzen dugun etxea, eta, guk bezalaxe, beren beharrik beteta eta zoriontsu bizi nahi dute guztiek. Lurra bizirik dago eta, izaki biziduna denez, hauskorra da, zaintzak behar ditu, saneamendua, mainak... behar ditu. Lurra eskuzabala da, baina ez da amaigabea. Lurra ez da gurea, gu gara Lurrarenak. Ikuspegi-aldaketa hori funtsezkoa da, nahi baldin badugu behintzat, datozen mendeetan ere, denok hartuko gaituen eta guztioi behar duguna emango digun planeta batean bizitzen jarraitzeko gizakiak izatea.

Jarduera honetan, Ipar Amerikako indiar buruzagi baten hitzetan entzungo dugu Lurra, naturaren babesaren, zaintzaren eta errespetuaren aldeko hausnarketa eder eta hunkigarrienetako bat. Duela 150 urte baino gehiago esandakoak izan arren, indarrean jarraitzen dute eta ikuspegi profetikoa dute oraindik ere. Elkarrekin erantzungo diogu Lurraren eskaera horri; lurra defendatzeko, babesteko eta gozatzeko moduak ikusiko ditugu; eta egunero ematen digun oparia ospatuko dugu.



1854an, Estatu Batuetako ipar-ekialdean, Swaminsh indiarrak bizi ziren tokian lur-eremu handi bat erosteko eskaintza egin zuen Ameriketako Estatu Batuetako presidentek, Franklin Piercek, eta ordainetan, herri indigenarentzako erreserba bat sortzea eskaini zien. Seattle indiar buruzagiak eman zion erantzuna Lurraren eta ingurumenaren aldeko adierazpen eder eta sakonenetarikoa da. Hasteko, hitz horiek arretaz entzungo ditugu. Materialetan proposatu dizuegun bideoa entzun eta ikus dezakezue, edo gutuna ozenki irakurri. Bi kasuetan, gutunaren kopia bana eman beharko diozue taldeko pertsona bakoitzari; izan ere, entzuten ari diren bitartean, durundi gehien egiten, gehien interpelatzen dituen edo arreta gehien pizten dieten zatiak markatzeko eskatuko diegu.

Jarraian, gutunaren edukia transkribatuko dugu. Letra etzanez markatu ditugu, denbora faltagatik murritu beharko bazenute, ken litezkeen zatiak.

Swamish leinuko Seattle Buruzagi Handiak Franklin Pierce Ameriketako Estatu Batuetako presidenteari bidalitako gutuna

Washingtongo Buruzagi Nagusiak dio gure lurak erosi nahi dituela. Adiskidetasun eta gogo oneko hitzak ere helarazi dizkigu Buruzagi Nagusiak. Asko estimatzen dugu adiskidetasun keinu hori, jakin baitakigu ez duela gure adiskidetasunik behar. Kontuan hartuko dugu eskaintza, bai baitakigu hala egin ezean, gizon zuria armak eskuan etorri eta gure lurren jabe egingo dela. Washingtongo Buruzagi Nagusia fida daiteke Seattle Buruzagi Handiaren hitzaz, urtarok itzuliko direla duten ziurtasun berberaz. Nire hitzak aldaezinak dira, zeruko izarrak bezalaxe.

Nola erosi edo saldu daiteke zerua edo lurraren berotasuna? Oso bitxia iruditzen zaigu ideia hori. Gu ez baikara airearen freskuraren jabe, ez eta uraren distiraren jabe ere. Nola erosi ditzakezue zuek horiek? Gure lurraren zatirik ñimiñoena ere sakratua da nire herriarentzat, *izei bakoitzaren orratz distiratsu bakoitza, ibai ertzetako hondar-ale bakoitza, basoen itzalen arteko ihintz-tanta bakoitza, zuhaitziko soilgune bakoitza eta intsektu bakoitzaren burrunba, horiek guztiak sakratuak dira nire herriaren oroimenean eta tradizioetan. Zuhaitzen enborrean barrena dabilen izerdiak ere Azal Gorriaren oroitzapenak dakartza berekin. Gizon zuriak, hil eta izarren artean noraezean ibiltzeko desagertzen denean, ahantzi egiten du sorterria, jaio zen Lurra. Gure hildakoek, aldiz, ez dute lur zoragarri hau inoiz ahazten, lur hau baita Azal Gorriaren ama.* Gu lurraren zati gara eta lurra gure zati da. Lore usaintsuak ahizpak dira, eta oreina, zaldia eta arrano handia, berriz, denak, gure anaiak. *Mendi malkartsuak, belardi lauak, zaldikumearen azalaren berotasuna eta gizakia, familia berekoak dira guztiak.*

Horregatik guztiagatik, Washingtongo Buruzagi Zuri Nagusia, gure lurak erosi nahi dituela dioenean, asko ari zaigu eskatzen. *Buruzagi Zuri Nagusiak dio leku bat gordeko digula, han eroso bizi gaitezten. Gure aita izango dela eta gu, berriz, bere seme-alabak. Horrexegatik aztertuko dugu gure lurak erosteko eskaintza. Baina hori ez da batere erraza izango, lur hau sakratua baita guretzat.*

Errekastoetan eta ibaietan dabilen ur garden hori ez da, ez, ur hutsa, gure arbasoen odola ere bada. Lurra saltzen badizuegu, gogoan izan beharko duzue sakratua dela, eta zuen seme-alabei ere irakatsi beharko diezue sakratua dela eta nire herriaren bizitzako gertakariez eta tradizioez direla mintzo aintzira hauetako ur gardenen gaineko isla misteriotsu horiek. Nire gurasoen, gurasoen, ahotsa da uraren murmurioa. Ibaiak gure anaiak dira, egarria asetzen digute. Ibaiek gure kanoak eramaten dituzte eta arrainak ematen dizkigute gure seme-alabei jaten emateko. Gure lurak saltzen badizkizuegu gogoan izan beharko duzue eta zuen seme-alabei irakatsi beharko diezue, ibaiak gure anaiak direla, bai eta zeuen anaiak ere, eta, beraz, anaiari ematen zaion gozotasun berdinarekin tratatu beharko dituzue ibaiak.

Badakigu gizon zuriak ez duela ulertzen gure bizimodua. Gizon zuriari berdin zaio gure lurra ala beste edozein, gaez iritsi eta behar duen guztiaren jabe egiten den arrotza baita. *Lurra ez da haren ahizpa, haren etsaia baizik, eta konkistatu ondoren, utzi egiten du, eta berriro ere bere bideari jarraitzen dio,*

gurasoen hilobia atzean utzita, batere axolarik gabe. Bere seme-alabena dena lapurtzen dio lurrari eta ez zaio batere axola. Ahaztu egiten ditu gurasoen hilobiak, bai eta seme-alaben eskubideak ere. Bere ama, lurra, eta bere anaia, zerua, erosi, lapurtu edo saldu daitezkeen gauzak bailiran tratatzen ditu, beste gauza batzuen truke ematen diren arkumeak edo lepokoak balira bezala. Lurra irentsi egingo du gosearen gosez, eta ez du ezer ere utziko, desertu itzela besterik ez.

Ez dakit zergatik, baina oso bestelakoak dira gure bizimodua eta zuena. Zuen hiriak ikuste hutsak begietako mina eragiten die Azal Gorriaren begiei. Agian, izan liteke Azal Gorria basatia delako eta gauzak behar bezala ulertzen ez dituelako. Gizon zuriaren hirietan ez dago leku lasai bat bera ere, ez eta udaberrian zuhaitzen loreak nola irekitzen diren edo intsektuen hegadak nola mugitzen diren entzuteko lekurik ere. *Baina, agian, basati hutsa naizelako ez ditut behar bezala ulertzen gauzak. Hirietako zaratak belarriak iraindu egiten dituela dirudi.* Eta nik neure buruari galdetzen diot, zer-nolako bizimodua du gizakiak ezin badu zata txoriaren kantu bakartia entzun, ez eta, gauez, aintziraren ertzeko igelen kroakak ere? Ni Azal Gorria naiz eta ez dut ezer ulertzen. Guk nahiago dugu aintziraren aurpegia ferekatzen duen haizearen hots leuna sentitu, bai eta haize horren beraren usaina ere eguerdiko euri-jasak garbitua, edo pinuen usainak lurrindua.

Azal Gorriarentzat oso preziatua da airea, izaki guztiek hats beretik hartzen baitute arnasa, animaliak, zuhaitzak, gizakiak, guztiok hartzen dugu arnasa aire beretik. Gizon zuriak ez du arnasten duen airea sentitzen, *egun askoan hilzorian dagoenaren antzera, ez du kiratsik sentitzen. Gure lurrak saltzen badizkizuegu, gogoan izan behar duzue airea oso preziatua dela guretzat, ez ahaztu aire horrek sostengatzen duen bizitzarekin partekatzen duela bere espiritua. Haizeak eman zien gure arbasoei lehen hatsa, eta, era berean, haizeak jaso zuen haien azken hatsa.* Gure lurrak saltzen badizkizuegu, sakratuak bailiran zaindu beharko dituzue, gizon zuriak ere belardietako loreek lurrindutako haizeaz gozatu ahal izateko leku moduan.

Aintzat hartu nahi dugu egin diguzun gure lurrak erosteko eskaintza. Onartzea erabakitzen badugu, baldintza bat jarriko dizuet: zuek, zuriok, senide bazenituzte bezala tratatu beharko dituzue lur honetako animaliak. Ni basatia naiz eta ez dut beste bizimodurik ulertzen. Milaka bufalo ikusi ditut belardietan usteltzen, gizon zuriak hantxe abandonatuak, 'burdinazko zalditik' tiro egin ondoren, gelditu ere egin gabe. Ni basatia naiz, eta ez dut ulertzen kea jaurtitzeko duen burdinazko zaldia nolatan den bufaloa baino garrantzitsuagoa, guk bizirik irauteko baino ez baititugu hiltzen bufaloak. Zer izango litzateke, bada, gizakia animaliarik gabe? Animalia guztiak desagertuko balira, gizakia bera ere hil egingo litzateke bere espirituaren bakardadeak jota; izan ere, animaliei gertatzen zaiena, laster horixe bera gertatuko zaie gizakiei ere. Elkarri lotuta daude gauza guztiak.

Zuen seme-alabei erakutsi behar diezue gure arbasoen errautsak gordetzen dituela oin azpian duten lurra. Lurra errespetatu dezaten, kontu iezaiezue zuen seme-alabei gure herriaren bizitzekin aberastua dagoela lurra. Gure seme-alabek dagoeneko dakitena erakutsi behar diezue zuen seme-alabei, lurra gure ama dela. Lurrari gertatzen zaion oro, lurraren seme-alabei ere gertatuko zaie. Gizakiek lurrari txistu egiten diotenean, euren buruari botatzen diote txistua. Hauxe da guk dakiguna: Lurra ez da gizakiarena,

gizakia da lurrarena. Hauxe da guk dakiguna: gauza guztiak elkarri lotuta daude, familia bat lotzen duen odola bezala. Lurraren sufrimendua, sufrimendu bihurtuko da lurraren seme-alabentzat.

Bizitzaren sarea ez du gizakiak ehundu, sare horretako haritxo mehe bat baino ez da. Sareari egiten dion kaltea bere buruari ere egiten dio.

Gure seme-alabek ikusi dute beren gurasoak umiliatuak izan direla beren lurra defendatzen zuten bitartean. Gure gerlariak ere lotsatu egin dira, eta orain alferkerian igarotzen dituzte egunak, euren gorpuzak jaki gozoz eta suzko urez pozoitzen dituzten bitartean. Ez zaigu axola bizitzeko geratzen zaizkigun azken egunak non igaroko ditugun, ez zaizkigu asko gelditzen jada. Ordu gutxiren buruan, negu gutxiren buruan, ez da noizbait Lur honetan bizi izan ziren leinu handien ondorengoetako bat bera ere geratuko hemen, egun batean boterea eta itxaropena izan zituen jende horien hilobietan negar egiteko. Gizaki zuria bera ere, Jainkoarekin laguntasunez mintzatu ohi dena, ez da libratuko guztiok dugun patutik.

Agian anai-arrebak izango gara, hori ikusiko da egunen batean. Gauza bakarra baino ez dakigu, eta baliteke gizon zuria bera ere egunen batean horretaz jabetzea, gure Jainkoa eta zuena berbera dela. Haren jabe zaretela pentsatuko duzue agian, gure lurraz jabetu nahi duzuen moduan, ez da horrela ordea. Jainko hori gizaki guztien Jainkoa da, nola Azal Gorriena, hala gizon zuriarena. Lur hau ederra da, eta lur hau erdeinatzea Sortzailea erdeinatzea da, eta haren haserrea ekarriko luke. Zuriak ere desagertuko zarete, agian beste leinu guztiak baino lehenago gainera. Ohantzeak kutsatzen dituzue, baina zuen hondakinetan itota hilko zarete gauren batean. Suntsipenaren bidean zoazte loriaz inguraturik eta Jainkoaren indarrak inspiraturik. Hark ekarri zintuzten lur honetara eta hark erabaki zuen asmo bereziren batengatik lurra eta Azal Gorria menperatu behar zenituztela. Patu hori misterio hutsa da guretzat, ez baitakigu zergatik akabatu behar diren bufaloak, zergatik hezi behar diren zaldi basatiak, zergatik busti behar diren hainbeste gizakiren usainaz oihan trinkoetako bazterrik ezkutuenak eta zergatik oztopatu behar den muino berdeen paisaiaren ikuspegia alanbre hitzunez.

Non dago sastraka? Suntsitua

Non dago arranoa? Desagertu zen

Bizitzaren amaiera eta biziraupenaren hasiera.





Irakurketaren ondoren, bateratze-saioa egingo dugu, eta parte-hartzaileei eskatuko diegu adierazteko arreta gehien piztu dieten gauzetako batzuk eta zergatik. Indiar buruzagiak azaltzen duena iraganeko zerbait dela uste duzu, edo oraindik ere indarrean dagoela esan genezake?

Eztabaida dinamizatu dezakegu gutunaren zati batzuek zer esaten diguten galdetuz. Parte-hartzaileek proposatutakoak nahikoak ez badira, hona hemen zerrenda labur bat:

- Nola eros edo saldu daiteke zerua edo lurraren berotasuna?
- Gu lurrarenak gara eta lurra gurea dugu.
- Badakigu gizon zuria gauez iritsi eta behar duen guztiaren jabe egiten den arrotza dela. Haren gose aseeginak lurrean dagoen guztia irentsiko du, eta basamortua besterik ez du utziko.
- Ez dago leku lasairik gizon zuriaren hirietan, ez eta udaberrian zuhaitzen loreak nola irekitzen diren edo intsektuen hegadak nola mugitzen diren entzuteko lekurik ere.
- Gizon zuriak ez du arnasten duen airea sentitzen.
- Lurra ez da gizakiarena, gizakia da lurrarena.
- Gauza guztiak elkarri lotuta daude, familia bat lotzen duen odola bezala. Lurraren sufrimendua sufrimendu bihurtuko da lurraren seme-alabentzat.
- Bizitzaren sarea ez du gizakiak ehundu, sare horretako haritxo mehe bat baino ez da.
- Gure Jainkoa eta zuena Jainkoa berbera da... Jainkoaren errukia berdin zabaltzen da azal gorrikoen eta aurpegi zurikoaren artean.
- Lur hau oso ederra da, eta lur hau erdeinatzea Sortzailea erdeinatzea da, eta haren haserrea ekarriko luke.
- Zuriak ere desagertu egingo dira.
- Bizitzaren amaiera eta biziraupenaren hasiera da.

Demagun gutun hori gutako bakoitzari iristen zaigula konpromiso bat eskatuz. Zein izango litzateke gure erantzuna? Tartetxo bat hartuko dugu, bakarka edo taldeka, horretan pentsatzeko eta erantzun bat prestatzeko. Erantzun horretan, lurrarekiko dugun konpromisoa adieraziko dugu, eta, gutxienez, hura zaintzeko egiteko prest gauden hiru/bost ekintza edo modu azalduko ditugu. Gutun edo manifestu gisa idatz ditzakegu, horma-irudi bat edo bideo bat egin daiteke sareetan zintzilikatzeko edo institutuan edo parrokian... erakusteko.

Azkenik, UNESCOren Lurraren Karta ezagutzera eta harekin inplikatzeko moduak eta aukerak bilatzera gonbidatuko ditugu parte-hartzaileak. Urrats hori ez da beharrezkoa jarduera osatzeko. Aparteko aukera bat da gaia lantzeko denbora gehien duten taldeentzat. Nolanahi ere, nazioarteko proiektu hori gutxienez ezagutzera ematea iradokitzen dugu. Horri dagokionez, gure gomendioa da jarduerak dinamizatzen dituztenek aldez aurretik ikusi ahal izatea proiektuaren edukiak, beren taldeentzat interesgarriena iruditzen zaiena aukeratzeko.



HAUSNARKETA EGIN ETA ESKERRAK EMATEKO

Jauna: lur osoan ditugu zure handitasunaren frogak. Hegaztiak, landareak, arrainak, lehorreko animaliak, ura, airea, gure anai-arrebak... Zugandik jaio da Lurrean bizi den oro, eta zure eskuzabaltasuna eta maitasuna ekartzen dizkigu gogora. Bere izaki guztiekin sortu zenuen, gu ere barne, bizitzaz bete zenuen, eta, zure seme-alaba kutun gisa, aingeruen antzekoak, lurra zaintzeko, babesteko eta gozatzeko agindua eman zenigun.

Opari ederra egin diguzu, maite gaituzulako eta gugan konfiantza duzulako. Lagun iezaguzu hori gogoan edukitzen eta zure arreten eta zaintzen merezidun izaten, gure eskuetan jarri duzun lurra zainduz eta babestuz. Ez dezagun ahantzi zure lanaren parte garela, beste parte bat.

Lurra eman diguzu eta Lurrekoak garela gogorazten diguzu. Lurra zaintzea geure burua zaintzea da.

8. salmoa

<https://www.youtube.com/watch?v=mC0dGIHYC-s> 

Jauna, gure jabea,
zein miresgarria den zure izena
lur osoan!

Zeruetan goratu zenuen zure maiestatea.
bularreko hurren ahotik
Gorazarre egin duzu zure etsaien aurka,
arerioa eta errebeldea erreprimitzeko.


Zeruari begiratzen diodanean, zure hatzek egina,
sortu dituzun ilargiari eta izarrei begiratzean,
zer da ba gizona, hartaz oroitzeko,
zer da gizakia, boterea emateko?

Aingeruak baino gutxi apalagoa egin zenuen,
loria eta duintasuna eman zenizkion,
agintea eman zenion zure eskuez egindako obren gainean,
haren oinpean jarri zenuen dena:

artaldeak eta zezen taldeak,
bai eta basapiztiak ere,
zeruko hegaztiak, itsasoko arrainak,
itsasoan bideak sortzen dituztenak.

Jauna, gure jabea,
zein miresgarria den zure izena
lur osoan!

Esteka honetan abesti-sorta bat aurkituko duzue, gizakiak lurrarekin duen harremanari, lurra zaintzeari eta lurra ez errespetatzearen eta ez babestearen ondorioei buruzkoak. Gogoeta eta esker-ematea giro-tzen lagun diezazuekete.

<https://www.youtube.com/watch?v=WCaYdsZkW4U&list=PLSPSEqvcuq42wDE2nqVGDZIEFblzu1c7I&index=9> 



caritas.es



@_CARITAS



facebook.com/caritas.espanol



@caritas_es



youtube.com/caritasespanola

➤ **Zaindu, eskutik heldu**
Cultiva cuidados

